


EUSKARAREN LEKUA BILATZEN

BEÑAT SUSPERREGI

Erreportaje honen bidez, euskara indartzea eta mundu osoko biztanle guztiak euskararen egoera jakitea lortu nahi dut. Gaur egun, duela 50 urtekoarekin alderatuz, euskararen egoera hobea den arren, gero eta pertsona gutxiagok hitz egiten dute, nahiz hitz egiteko gai izan. Horretarako, euskarari buruz honako informazio hau jaso dut.

MUNDUKO MAPA KOLORETSUA



Munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzak, gaztelania, ingelesa, frantsesa, portugesa, txinera, koreera, errusiera, alemaniera, italiara, arabiera, hindustaniera, pertxiera, swahili...

Mapa koloretsuan ikusten den bezala 1.postuan Txinera, 2.postuan Gaztelera eta 3.postuan Ingelesa daude.


Mundu osoan 7.000 hizkuntza daude. 7.000 hizkuntzetatik, ezagutzen ditudan hizkuntza batzuk hauek dira: txinera, Gaztelera, Euskara, Italiara, frantsesa, Koreera, Errusiera, Poloniera, Ingelesa, Alemaniera...

Munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzak, Gaztelania, Ingelesa, Frantsesa, Portugesa, Txinera eta Ingelesa dira.

Gaur egungo mundu lehiakorrean hizkuntzak funtsezkoak dira gure kultura modernoan, gure eza-gutzak zabaltzen eta munduko beste toki batzuetan

ESKALAREN JOKOA, HIZTUN

KOPURUAREN ARABERA



DATUAK:

-Txinera da munduan gehien hitz egiten den hizkuntza, hiztun gehien dituen da. 10. zenbakian kokatuta dago.

-0an, berriz, azken hiztuna galdu berri duen hizkuntza bat kokatuta dago.

Euskara zenbagarren postuan dago kokatuta eskalan? Zenbat hiztun ditu euskarak lurraldeka?

1.000.000 hiztun baino gehiago dituzten hizkuntzak 9. zenbakian kokatzen dira. Beraz, Euskara 9. zenbakian kokatuta dago, 1.000.000 hiztun inguru dituelako:

-**EAE: 790.000 hiztun inguru ditu.**

-**IPAR EH: 57.000 hiztun inguru ditu.**

-**NAFARROA: 75.000 hiztun inguru ditu.**

-Ethnologue erakundearen arabera, 400 hizkuntza dira munduan milioi bat baino hiztun gehiago dituztenak, eta Euskara horietako bat da.

-Titularra. Euskara munduan hiztun gehien dituzten herrien %10ean dago.

ko jendearekin elkarreragiten laguntzen baitute, eta horrek beste herrialde batzuetako tradizioetatik ikas-ten laguntzen digu. Adiskidetasuna eta negozioak egiten. Prestakuntza eta hizkuntzak dira enplegua aurkitzeko baldintza nagusiak.

Beraz, hizkuntza guztiak garrantzi berdina dute munduan. Zenbat eta hizkuntza gehiago hitz egin errazagoa da pertsonekin komunikatzeko.

CALVET BAROMETROA

-CALVET: Soziolinguista frantsesa eta barometroaren egilea da.



-Zenbat hizkuntza biltzen ditu sailkapenak?

2470 hizkuntza biltzen ditu sailkapenak.

-ZER NEURTU DU?

Hizkuntzen bizi-indarra, 563 hizkuntza, 11aldagai 500.000tik gora hiztun dituztenak.

-EUSKARA ZEIN POSTUTAN?

Euskara, 51ean postuan dago.

-WIKIPEDIA: 160.000tik gora, artikulu kopuruan dagokionez, 35.postuan, 280 hizkuntzetako bat.

-TWITTER: 38.hizkuntzatan, eta euskaraz bat.

- 1.-Hiztun kopurua.
- 2.-Entropia.
- 3.-Erabilgarritasuna.
- 4.-Hizkuntza ofizialak.
- 5.-Jatorrizko testuen itzulpena.
- 6.-Xede hizkuntzaren itzulpena.
- 7.-Literatura Sari Nazionala.
- 8.-Wikipediako artikulu kopurua.

ZERGATIK IKUSTEN DUGU EUSKARA

HORREN TXIKI?

Arrazoi ugari daude Euskara hain txikia ikusteko, niri bururaten zaizkidan batzuk aipatuko ditut:

- Euskal Herria txikia delako, eta hemen bakarrik hitz egiten delako.
- Hitz egiteko gai den jende askok egiten ez duelako.
- Munduko bi hizkuntz indartsuenen pare egotea ezinezkoa delako.
- Euskal instituzioek neurri eraginkorrik ezartzen ez dutelako.
- Nafarroako gobernuak adibidez, urtetan, euskararen aurkako neurriak hartu izan dituelako.
- Frantses gobernuak euskararekiko ezertxo ere jakin nahi ez duelako.

EUSKARAREN EGOERA UNESCOREN

ARABERA

-Unesco-k munduan desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak koloretan sailkatu ditu.

KOLOREAK ETA ARRISKU MAILAK:

-Txuria: Zaurgarria.

-Horia: Arriskuan.

-Laranja: Arrisku nabarmena.

-Gorria: Arrisku larria.

-Beltza: Desagertua.

Hainbat faktore hartu ditu kontuan Itziar Idiazabal EHUko irakaslearen arabera sailkapena egiteko, baina bat da garrantzitsuena: Belaunaldien arteko transmisioa.

-HEGO EH:

-Bikote euskaldunen artean, %100.

-Bikote mistoetan, %80.

-IPAR EH:

-Bikote euskaldunetan ere oso eskas.







- 9.-Giza garapenaren tasa.
- 10.-Ugalkortasun tasa.
- 11.-Interneteko sarbidean tasa.
- 51.postuan, Euskara dago eta 71.postuan Bretoiera dago.

HIZKUNTZA GAITASUNA: (%)

- NAFARROA: 24,2
- EAE: 61,45
- IPAR EH: 45,55
- EH OSOAN: 43,72

KALE ERABILERA: (%)

- NAFARROA: 6,7
- EAE: 14,8
- IPAR EH: 5,3
- EH OSOAN: 8,9

Bizitasun-maila	Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa
 <i>arriskurik gabe</i>	Belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza eta belaunez belauneko transmisioak ez du etenik. >> ez da Atlas-ean sartzen
 <i>zaurgarria</i>	Haur gehienek hitz egiten dute hizkuntza, baina erabilera zenbait eremutara mugatuta egon daiteke (familia girora, adibidez).
 <i>arriskuan</i>	Haurrek jada ez dute ikasten ama-hizkuntza gisa.
 <i>arrisku nabarmena</i>	Aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak bakarrik hitz egiten dute hizkuntza. Gurasoen belaunaldiekoek, ulertu badezakete ere, ez dute beraien artean erabiltzen, ezta seme-alabekin ere.
 <i>arrisku larria</i>	Hiztun bakarrak, aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak dira, baina gutxitan eta oso modu partzialan darabilte hizkuntza.
 <i>desagertua</i>	Ez da hiztunik geratzen. >>Atlasak, 1950. urtetik aurrera desagertutako hizkuntzen erreferentzia dakar.

ITURRIA:

- Sozialinguistika klusterrak bildu.
- Euskararen datu Basetik jaso.

NOLA ATERA ARMAIRUTIK 500.000 EUSKALDUN?

-DATUAK:

- 200.000 lagun ez gara iristen euskal kultura kontsumitzera.
- 1/4-k bakarrik kontsumitzen dute euskal kultura.

ZENBAT BIZTANLE?

- NAFARROA: 650.000 inguru.
- EAE: 2 milioi inguru.
- EH OSOAN: 3 milioi inguru

-AHOLKUAK:

- 1.-Irakurri liburu bat euskaraz.
- 2.-Berria egunkaria eta Argia astekaria igandean.
- 3.-Antzezlan bat ikustera joan.
- 4.-Etb1 sintonizatu 1.katean.
- 5.-Instalatu euskarazko musika entzuteko app-a: badok.eus.

ONDORIOAK:

Informazio hau guztia jaso ondoren, nire iritzia, munduan desagertzen ari diren hizkuntzak bultzatzea eta bizirik jarrai dezaten haien aldeko aldarria egitea izango litzateke. Pixkanaka desagertzen ari diren hizkuntza horiei, arnas bideak eman beharko lizkiekete gobernu ezberdinek desagertu ez daitezen, baina hezkuntza sistema elebarrak dituzten estatuek, askotan hiztun gutxiko hizkuntzak ez dituzte aintzakotzat hartzen.

Badira gutxienez 3.000 hizkuntz munduan desagertzeko arriskuan daudenak eta 3.000 horietatik, hizkuntz gutxik lortu dute hezkuntza sistema baten inguruan eta diru publikoaren bitartez

diru laguntzak edukitzea. Gure euskara da arriskuan dauden hizkuntza horietako bat. Guk euskara desagertzea nahi ez badugu, guztiok gure esku dagoena egin beharko genuke nahiz txikia izan ahalegina.

Artze euskal poeta esan zuen:

- “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz-egiten ez dutelako baizik”.

Artzek esan zuenarekin bat, nire hautua ahal dudan neurrian, euskara bultzatzea izango da: “GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN”.

Guztiok Euskaraldiko lema honi kasu pixka bat egingo bagenio, beste egoera batean egongo ginateteke aspaldi, baina inoiz ez da berandu borondaterik badago, eta borondatea dagoen bitartean ez genuke gure hizkuntza maite hau hiltzen utzi behar.

Koldo Mitxelenak esan zuen bezala:

- “Euskararen egiazko misterioa ez da jatorria, iraupena baizik”.

Ez dezagun guk, XXI. mendeko neska-mutilek iraupen horrekin amaitu.

Euskaraz hitz egin dezagun, ez da beharrezkoa denbora guztian euskaraz hitz egiten aritzea, hizkuntza bat hitz egiteko ere ez da inor hizkuntz horretan hitz egitea behartu beharrik. Hizkuntz batekiko maitasunik ez bada, alferrikakoak izango dira hizkuntz harengana urbiltzeko egingo diren ahalegin guztiak. Hizkuntzarekiko maitasunak eta norbanako konpromisoa izango dira azkenean euskara noizbait zulotik aterako dutenak.

Argi dago euskara ez dela inoiz txinera, ingelesa, frantsesa edo gaztelera bezalako hizkuntz indartsuak bezalakoak izango, baina guk euskaldunok ere ez dugu halakori eskatzen. Munduan gure lekutxoa, gure zatitxoa azkenean aurkitu eta ingurukoen begirunea edukitzea soilik eskatzen dugu.